

HISPANIAKO ERROMANIZAZIOA

EPIGRAFIAREN BIDEZ

Emakumearen esku hartze ekonomikoa *Imperium Romanum*-eko *Hispania*-n



eman ta zabal zazu



UPV EHU

Eva Perosanz Moral
Ikasturtea: 2016/2017
Historiako Gradua
Tutorea: Isidora Emborujó Salgado
Saila: Ikasketa Klasikoak

Laburpena: Aurkezten den lan honetan Erromatar Inperioaren hasieran *Hispania*-n emakumeek izandako ekarpen ekonomikoa ikertzen da. Lanaren helburu nagusia historiografia tradizionalak emakumeen inguruan eraikitako estereotipoarekin haustea da, emakumeek egindako ekarpena handia eta anitza zela erakutsiz. Emakumeak, etxeke esparrutik haratago, ekonomian rol garrantzitsua izan zuela adierazteko, hipotesi hori bermatzen duten aurretiazko egindako lan zientifikoak aurkezten dira eta epigrafiari arreta berezia jartzen zaio ikerketa hau aurrera eramateko berebiziko iturri gisa. Horrela, K.o. I-II. mendeetan emakumeen lanbideei erreferentzia egiten dieten *Hispania*-ko inskripzioak batu dira, azterketa eta interpretazio sakon eta argigarri bat aurrera eramateko xedearekin.

Abstract: This current writing studies the economic contribution of women in *Hispania* during the beginning of the Roman imperial period. The main objective of the work is to broke with the stereotype the traditional historiography have created around the women, and to demonstrate that their contribution was large and diverse. With the aim of explaining that women had a fundamental role in the economy, beyond being limited to the domestic area, previous scientific studies that support this hypothesis are presented and epigraphy is given special attention to as an essential source for this study. Thus, the inscriptions mentioning the works of women in *Hispania*, dating from the 1st to 2nd centuries AD, have been compiled, with the objective of carrying out a more profound and illustrative investigation and interpretation.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
I. METODOLOGIA ETA AURREKINAK	5
II. LANAREN TESTUINGURUA	7
2. EMAKUMEAREN PAPERA LAN MUNDUAN	11
I. NEKAZAL MUNDUKO LANBIDEAK	12
II. ZAINTE ETA MANTENTZE LANBIDEAK	13
III. HIRIGUNEETAKO LANBIDEAK	18
IV. CORPUS EPIGRAFIKOAREN AZTERKETA	20
3. ONDORIOAK	25
4. ITURRI KLASIKOAK ETA BIBLIOGRAFIA	31
5. ERANSKINAK	33

1. SARRERA

Lan honek azken hamarkadetan azaleratzen joan den gai bati ekitea du helburu: emakumearen papera historian. Izan ere, askotan, gizonezkoek aurrera eramandako gertaera handietara mugatu den gizarteak ikusezintasunez jantzi du emakumea eta bere ekarpena, historian emakumeak zereginik ez zuelarik.

Hori dela eta, arlo honetan lan egiteak garrantzi handia du, bai emakumearen presentzia azpimarratzerako baita egunerokotasuna ezagutzearen beharra nabarmentzeko ere, hots, gizarteak historia idazterakoan alde batera utzitako gaiak eta pertsonak agerian uzteko. Izan ere, historia, bere horretan, gizarte osoak eta gertakari guztiek osatu zuten, nahiz eta garaiko pertsonak soilik alde batzuk etorkizunerako betikotu.

Kasu honetan, beraz, nahiz eta arazo hau aro historiko guztietan aurkitu daitekeen, Antzinaroko ikuspegitik hurreratuko da; garai hau baita, pertsonalki, besteak baino gehiago gizartearen idearioan izen maskulinoen oihartzuna utzi duena —Zesar, Neron, Salustio, Tito Livio, Eszipion...—.

Hispania erromatarrean eta erromatar munduan barrena gizonezkoek soilik zitu zuten denboran zehar aztarna uzteko beharrezkoak ziren ahalmen juridikoa, politikoa eta sozioekonomikoa. Emakume hispanoerromatarrek, ordea, ez zuten erabakiak hartzeko eskumenik eta, ondorioz, historia tradizionalarentzat, ikusezintasunean geratzen ziren (Gallego 2004, 185), nahiz eta gaur egun iturri historikoen planteamendu berriek egoera horri aurre egiten dioten, lan honetan agertuko den bezala. Eta, ez hori bakarrik, orokorrean emakumeez ikusi den gauza bakarra hauen etxeko lana izan da. Baina, hori al zen emakumeez ekonomiarik edo eguneroko bizitzari egiten zioten ekarpen soilak?

Galdera horri erantzuteko, emakumeen historiaren erroten sortutako metodologia erabiliko da, nahiz eta beste metodologia batzuen zertaladak ere izan. Historiografia hau, era esplotatu batean, XX. mendeko azken hamarkadatik ikertua izan da. Data hori

baino lehen, nahiz eta ikerketa lan desberdinak egon, ikertzaileen interesak beste batzuk zirela dirudi. Interesgarria da, edonola ere, ikerketa hauek guztiak aurrera eraman dituzten ikerlari gehienak emakumeak direla esatea.

I. METODOLOGIA ETA AURREKINAK

Emakumeen historia orain dela gutxi jaio zen, mendekoa edo subalternoa zen sujetu sozial bat, bere pisu demografikoa eta gizartean zuen eragina handia izan arren, momentura arte sortutako historiografiak izkutatu eta sahiestu zuena berreskuratzeko asmoarekin (Hernández 2004, 29).

Metodologiari jarraiki, lan honetan, “emakumeen historia” erabiltzea defendatzen da, kontzeptu eta esanahi desberdintasuna dagoelako “emakumearen historia”, “generoaren historia”,... eta abarrekoekin (Lorenzo 2004, 75). Hau da, “emakumeen historia”-k protagonista bezala historiaren sujetu femeninoak hartzen ditu; eta, gainera, pluralean egonik, emakumeen artean dauden desberdintasunak islatzen ditu, emakume mota bakarra ez dagoelako. Are gehiago, orokortzat jo den “emakume erromatarra”-ren irudiarekin apurtzen du.

Emakumeen eta gizonezkoen artean berdintasun bat dagoelaren gaur egungo ideia hasiera puntutzat harturik, eta XIX. mendetik datozen ikuspuntu feministak kontuan izanik, emakumeak protagonista gisa dituen historia honek era zuzenean modernitateak gizartean, ekonomian, politikan,... sortu dituen aldaketak ere islatuko ditu. Honi guztiari 1980. hamarkadatik aurrera giza-zientzietan emandako aldaketa gehitzen badiogu, hots, generoaren analisia, azpimarragarria da emakumeen historiak hain denbora gutxian historiografian lortutako ospea (Hernández 2004, 29-30).

Zentzu orokor batean, tradizionalki emakumeen historiak gizartearen desberdintasunen kausak eta fundamentuak aztertu ditu; hau da, emakumeen barneratzea eta bazterketa hiri edo gizarte baten historia politikoaren eta sozialaren garapenari dagokionez. Beraz, honen helburu nagusia historia orokorrean azaltzea eta

ulertzea izango litzake, generoen arteko erlazioan zentratzen den ikuspegi batetik eraikiz, historia globalizatzaile eta integratzaile bat osatzeko (Aguado 2004, 70).

Izan ere, historia, funtsean, dominazio tresna bezala erabilia izan da denbora luzez, diskurtso hegemoniko eta baztertzailen mesedean. Honek, boterea jarraikorra eta hurrenez hurreneko zerbait zela pentsatzea eragin zuen eta hari erresistentzia egin zioten pertsona eta adierazpenei *damnatio memoriae* eraginkor bati kondenatzea ere bai (Lorenzo 2004, 85). Hori dela eta, beharbada, historiagileon lana historia horretatik askatzea izan beharko zen, botere hori izan ez zuten pertsonak ere kontuan izanik, benetako historia bat eraikitzeko. Horregatik, lan honetan emakume hispanoerromatarrari ahotsa eman nahi zaio. Izan ere, Martínez-en hitzetan,

“(…) la historia de las mujeres hispanas es compleja y está muy lejos de aquellas versiones simplistas que la confundían con la imagen femenina creada por los filósofos y literatos, que la reducían a lo ordenado en la normativa jurídica, y que sólo alcanzaban a ver su papel «natural» en la esfera privada como madres y esposas” (Martínez 2005, 141).

Emakumeen historia garatu arte, orokorrean, antzinaroko emakumearen lanari buruzko ikerketak oso murrizak ziren. Antzinako ekonomiari buruzko obrek ez dute emakumea aipatzen, emakumearen zereginak etxeko lanetara mugatzen zelarik, hauen adibide Mijail Rostovzeff eta Francesco de Martino direlarik (Medina 2014, 56).

Emakumeen lanari buruzko informazioa jasotzen duen lehenetarikoa Étienne Boileau izan zen, bere *Livre des métiers* (1258) obran. Bertan Antzinaroko lanbide anitz agertzen dira, hala gizonezkoenak nola emakumezkoenak eta, gainera, emakumeek soilik aurrera eramaten zituzten lanbideak ere aipatzen ditu —orratzaileak, kardariak,... — (Medina 2014, 57).

Aro garaikidean zentratuz, Karl Marx eta Friedrich Engels-en obrek iraultza bat suposatu zuten lana proiektatzeko orduan. Edonola ere, kontuan hartu behar da

feminista batzuk Marxek emakumearen lana elkartrukearekin bakarrik lotzen duela kritikatzeko dutela. Pentsamendu lerro horretatik jarraiki, Auguste Bebel aipatu beharra dago *Die Frau und der Sozialismus* obrarengatik. Hala ere, emakumeen historia garatu zenera arte itxaron behar da Iberiar Penintsulan *Hispania*-ko historia eraikitzean emakumearen presentzia ikusteko. Horrela, aipagarriak dira Gonzalo Bravo-ren eta Juan Francisco Rodríguez Neila-ren lanak¹; baita gaur egun klasikotzat jotzen diren Joël Le Gall, Susan Treggiari, Natalie Kampen edota Arcadio del Castillo autoreak ere (Medina 2014, 57-62).

Esan bezala, 80. hamarkadan hasiko dira Espainian emakumearen lanbideei buruz interesatzen. Antzinaroan, Henar Gallego Franco, Cándida Martínez López, M^a Dolores Mirón Pérez eta Dolores Molas Font aipagarriak dira (Medina 2014, 62-63).

Ondorioz, lan honek bi helburu nagusi izango ditu. Alde batetik, mikrohistoriari eta historia sozialari aipamen bat eginez, eta emakumeen historian zentratuz, emakume hispanoerromatarra nolakoa zen aurkeztu nahi da, ekonomian izandako parte hartzea azaleratuz. Horretarako, *Hispania* erromatarraren lan mundura hurbilketa bat egin nahi da, mundu horretan emakumeak parte hartze nabaria izan zuelako eta, batez ere, kargu politikoez aparte, lanbide anitz zeudela errebindikatzea bilatzen delako. Bestalde, hau guztia aurrera eramateko, bibliografiaz gain epigrafiarekin lan egingo den heinean, zientzia honen garrantzia azpimarratzea bilatzen da, askotan bere erabilera bigarren maila batera urrundu delako.

II. LANAREN TESTUINGURUA

Lan honetan erabiliko diren inskripzioak *Hispania* osoan zehar kokatzen dira, Penintsulan aurkitzen diren lanbide desberdinen tipologia guztiak arakatzeko asmoz. Kronologiari dagokionez, Erromatar Inperioaren garaian kokatuko da, nahiz eta,

¹ BRAVO, G., «Hispania y el Imperio». SANDOICA HERNÁNDEZ, E., 1999, *Historia de España. Tercer milenio*, Síntesis; RODRÍGUEZ NEILA, J.F., GONZÁLEZ ROMÁN, C., MANGAS J., OREJAS, A., 1999, *El trabajo en la Hispania romana*, Madril: Sílex Universidad.

bereziki, K.o. I-II. mendeetan zentratu², momentu honetakoak baitira hobekien kontserbatzen direnak. Lana burutzeko, baliabide nagusia *Corpus Inscriptionum Latinarum (CIL)* izango da, eta, honekin batera, *Hispania Epigraphica (HEp)* eta *L'Année Epigraphique (AE)*.

Antzinaroko emakume erromatarraren historia ezagutzeko iturriak izaera anitzekoak direla esan beharra dago: iturri literarioak, iturri arkeologikoak eta iturri epigrafikoak. Azken hauek aurreko biekin erlazio zuzena dute, testu idatziak euskarri materialetan aurkezten dituelako. Baieztapen honek, Gallegoren (2004) ustetan, hispaniar emakumeen iraganeko eraikuntzan iturri epigrafikoek duten balio handia islatzen du, hauen ikerkuntza kontserbatzen diren epigrafeen faltan aurrera eramatea ezin izango zelako.

Horrela, epigrafia, iturri literarioek emakume hispanoerromatarrari —eta, orokorrean, erromatarrari— buruz ematen duten irudi tradizionalarekin hausteko ezinbestekoa da. Hau da, emakumea etxeko esparrura mugatzen duten edo dekadentzia moralean baltsatzen duten baieztapen orokorrak alde batera uzteko epigrafia lagungarria da. Izan ere, iturri literarioak gizonezkoek idatziak izan ziren hein handi batean eta, askotan, intentzionalitate politiko edota pertsonal batekin. Epigrafeek, ordea, lehen mailako informazio bat eskaintzen dute, manipulazioak jasateko arrisku gutxiagorekin (Gallego 2004, 187). Izan ere,

“Los documentos epigráficos nos dan a conocer no a la mujer en general, sino a cada mujer, a cada individualidad. Lo que cuenta es la persona. En el poco espacio que nos ofrece la piedra, (...) no es fácil que se nos presenten exageraciones o manipulaciones de tipo político. El texto se acomoda a la realidad” (Del Hoyo 1986, 237-238).

Dokumentazio epigrafikoaren bidez, gainera, informazio desberdin batzuk lor daitezke. Alde batetik, alderdi prosopografikoa eta patroi onomastikoak daude,

² Lan honetan agertzen diren data guztiak, kontrakoa agertzen ez bada, Kristo ondokoak dira.

emakumeen izenen latinizazio edo indigenismo gradua ikusi daitekeelarik, hala nola haien egoera juridikoa —hiritarrak, esklabuak, *peregrini*—. Honek emakume hispanoerromatarraren integrazioa ebaluatzea ahalbidetzen du, bai onomastikaren erromanizazioarekin baita bere egoera juridikoarekin ere. Beste aldetik hainbat datu eskuratzen dira —adina, jatorria, senidetasuna,...—, zeinek ikerketa demografikoak eta harreman familiarren azterketak aurrera eramatea posible egiten duten. Azkenik, hainbat formularen ikerkuntzak, adibidez, emakume hauek zuten hildakoenganako ohitura erromatarren asimilazioa edota ondarearen igorpenean zuten papera ikusi daiteke, penintsularen erromanizazioaren marko batean (Gallego 2004, 196-197).

Objetu publikoa izaki, inskripzioak helburu zehatz bati erantzuten zion beti, ez zen zorizko zerbait izaten. Intentzio hori pertsonaren *status*-aren arabera izaten zen, nahikaria inskripzio horren kokalekuan ikusi daitekeelarik —desberdina zen nekropoli baten eskina zuhur batean egotea edo foruko oinpeko batean—. Adibide gisa hartu daitezke Erroman aurkitzen diren *Caius Cestius Epulo* senatariaren hilobia, zeinak piramide forma duen, edota *Marcus Vergilius Eurysaces* okinarena, zeinak labe itxura duen. Eredu hauek “(...) permiten encuadrar muy bien los deseos de evocación vinculados a la elección de un tipo y otro de soporte epigráfico y a la decisión del lugar que éste debía ocupar” (Andreu 2009, 131).

Hain handia zen inskripzioen garrantzia, ezen *damnatio memoriae*-aren eraso kontuan hartzea beharrezkoa den. Teknikoki inskripzioaren testuaren ezabatze partzial edo osoan zetzan —estatuak kentzea ere honen barruan sar daiteke—, eta, ondorioz, inskripzioen erabilerari mehatxu egiten zion. Hau zen, inskripzioetan iraunkortasuna bilatzen zutenentzat, haien nahiei amaiera emateko bide desiraezinena (Andreu 2009, 133).

Ondorioz, *Hispania* erromatarraren emakumeen historiaren eraikuntzan, epigrafia izan da fruitu gehien eman dituen zientzia. Hau XX. mendeko 80. hamarkadako historiografiak baieztatzen du, gaur egun arte lan desberdinak aurkeztu direlarik,

ikerketa gaien aniztasuna eta iturri epigrafikoen erabilera geroz eta handiagoak direla eta.

Alabaina, ezin da ahaztu epigrafiak ere bere mugak dituela. Alde batetik, kontuan izan behar da manifestazio epigrafikoak Antzinaroan ohikoak izan baziren ere, hauek eraikitzeke ahalmen ekonomikoa izan behar zela. Bestalde, eskura dugun material epigrafikoa antzinako Erromatar Inperioan zehar ekoizitakoaren zati bat baino ez da, interpretazioan akatsak eragin ditzakeena —informazioa orokortu daiteke—. Gainera, erromatar gizartea patriarkala zela gogoan izanik, sexuen arteko konparaketa kuantitatiboak kontu handiz egin behar dira. Era berean, epigrafeetan agertzen diren errepresentazioak idealizatuak edo estereotipatuak egon daitezkeela kontuan izan behar da. Azkenik, *imitatio*-a kontuan hartu behar da: epigrafeak egiteko ohitura erromatarra den arren, *Hispania*-ko populazio indigenak inskripzioak egiten bukatu zuen. Behin erromatartuak, aldika, komunitateak indigenak izatetik hispanoerromatarrak izatera pasa ziren; beraz, iturri epigrafiko gehiago egongo dira erromanizazio maila garatuenak dituzten eremuetan (Medina 2014, 20-22).

Edonola ere, epigrafia informazio iturri zuzen gisa agertzen da. Honekin egindako hurbilketa honi esker, gaur egun jakina da emakume hispanoerromatarrek egitura sozioekonomikoetan, erlijiosoetan eta publikoetan parte hartu zutela, aurretik pentsatzen zena baino modu aktiboago batean:

“Miembros activos de las poderosas familias de la aristocracia imperial y senatorial, prósperas propietarias de esclavos, tierras y negocios, benefactoras para con su ciudad, sacerdotisas de notable prestigio social, dispensadoras y receptoras de honores públicos, pero también mujeres modestas, de origen libre o servil, volcadas activamente en el ámbito doméstico y privado” (Gallego 2004, 199-200).

Hori dela eta, iturri epigrafikoak erabiltzeak emakume hispanoerromatarraren egokitzapenari eta erromanizazio prozesuan izandako ekarpenari buruzko informazioa

eman dezake eta, honekin batera, desberdintasun geografikoak, kronologikoak eta sozioekonomikoak kontuan izanik, generoen arteko konparazioa egitea ahalbidetzen da (Gallego 2004, 199-200).

2. EMAKUMEAREN PAPER LAN MUNDUAN

Eva Cantarella-k (1991) defendatzen duen moduan, Antoninoen eta Severotarren garaian emakumea *virilia officia*-etatik baztertua izan zen Laktantziok zioena ekiditeko: “*quanta erit infelicitas urbis ullius, in qua virorum officia mulieres occupabunt*”³. Eta, urteekin, emakumearen zereginak familiarekin zerikusia zuten ekintzetara mugatzen zelaren antzinako ideia inposatu bazen ere —bi sexuen arteko erlazio kristaua gailendu zenean— (Cantarella 1991, 88), ezin da pentsatu aurretik emakumearen eginbeharrak ugalketara murrizten zirenik.

Egia da antzinaroa izan zela, zereginari begira, bi sexuen arteko desberdintasuna markatu zen momentua. Nolanahi ere, emakumeak etxean lan egin behar zuelaren ideia teorikoa zen⁴, bertatik at lan egin zuelaren lekukotasunak daudelako (Medina Quintana 2014, 29-30).

Literatura greko-erromatarrean dauden erreferentzia eskasak alde batera utzita, epigrafiak emakumeen lanbide batzuk azaleratu ditu, askotan etxeko zereginekin zerikusia dutenak —ehungintza, zaintza,...—. Hala ere, kontuan hartu behar da emakumezkoen lanbidea zentzu bikoitzean ulertu behar dela: alde batetik, ordaindutako lanbideak eta, bestetik, ordainduak ez zirenak, baina ogibide kontsideratu beharrekoak —zaintze eta mantentze lanak, kasu— (Medina Quintana 2014, 27-28).

³ “Cuánta infelicidad habrá en la ciudad en la que las mujeres ocupen las tareas de los hombres”. Lact., *Epit.*, 3, 38, 5

⁴ Platon-en hitzetan: “Luego si nos encontramos con que la naturaleza del hombre difiere de la de la mujer con relación a ciertas artes y a ciertos oficios inferimos que tales oficios y artes no deben ser comunes a los dos sexos. Pero si entre ellos no hay otra diferencia que la de que el varón engendra y la mujer pare, no por eso consideramos como cosa demostrada que la mujer difiere del hombre en el punto en que aquí se trata y nos sostendremos en la creencia de que no debe hacerse ninguna distinción respecto a los oficios entre nuestros guerreros y nuestras mujeres” (Plat., *Theae.*, 5, 454)

Lan hauek guztiak emakume libreek zein esklabuek aurrera eramaten zituzten⁵, Grezian edo Egipton ere ikusten denez. Edonola ere, epigrafia erromatarrean ez dira lanbide guztiak agertzen, baina jakina da eginkizun horiek aurrera eramaten zituztela, prostitutekin edo meatze-lanekin gertatzen den moduan. Gainera, emakumeek ere gizonezkoei esleitu ohi zaizkien lanak aurrera eraman zitzaizketen—*Cornelia Uenusta*⁶, *liberta zena*, adibidez, *Augusta Taurinorum*-eko (Turin) *clavaria* izan zen, hots, iltzeak eta kabilak egiten zituena—. Eta, Italiar penintsulan *Hispania*-n agertzen ez diren lanbide batzuen zantzuak dauden moduan, emakume hispanoerromatarrek gaur egunera arte inskripzioetan kontserbatu ez diren lanbideak ere aurrera eraman zituztela esan daiteke (Medina Quitana 2014, 30-31).

I. LANDA MUNDUKO LANBIDEAK

Mundu Klasikoaren sistema ekonomikoa nekazaritzan oinarritzen zen, moralki gogapen handia zuena; baina, honekin batera, abeltzaintza, merkataritza eta artisautza zeuden. Honen harira, azpimarragarria da Jenofontek bere *Ekonomiko*-an etxeko esparrua emakumeena izango balitz bezala aurkezten duela eta esparru publikoa, berriz, gizonezkoena: “la repercusión de la obra de Jenofonte es de gran relevancia, si consideramos que el esquema de la división de espacios establecido por él permanece inalterable en los discursos de los principales autores y moralistas, no solo de la Antigüedad sino a lo largo de toda la historia” (Medina Quintana 2014, 65).

Hala ere, emakumearen balizko ahultasuna eta *fragilitas sexus* delakoaren *topos*-a alde batera utzita, Kolumelak *vilica*, etxaldearen arduradunaren kidea, fisikoki indartsua izan behar duela defendatzen du, eguneko ekintzak aurrera eramateko, “porque la mayoría de preceptos deben ser iguales en el hombre y en la mujer, y uno y otro han de evitar tanto obrar el mal, como deben esperar la recompensa de lo que han hecho bien”⁷.

⁵ *Liberta*-ei buruzko informazioa izateko, ikus: HOLMAN, L. M., 2015, *Roman Freedwomen. Their Occupations and Identity*.

⁶ *CIL* V, 7023 ; *AE* 2003, 115.

⁷ *Col.*, *Res Rustica*, 12, 1

Kolumelak kanpoko ekintzak ere aipatzen ditu, hala nola ardiak eta ahuntzak jeztea, artilea moztea, edota nekazal egutegiko oinarrizko ekintzetan parte hartzea (Medina Quintana 2014, 66-68). Baieztapen honek erakusten du, nahiz eta Kolumelak eta agronomoek, orokorrean, emakumearen esparrua etxekoa zela defendatu, emakumeek ere etxetik at lan egiten zutela.

Bestalde, Ovidiok, *Fasti* obran, emakumeak landa munduan lan egiten dutela islatzen du, hurrengoa esatean: “la propia campesina propietaria lleva allí fuego cocido de una hoguera templada en un cuenco desbocado”⁸.

Ondorioz, emakumeek nekazal unitateen mantenturako ezinbestekoak ziren ekintzak aurrera eramango lituzkete. Esplotazio handietako emakume esklabuen kasuan, orokorrean etxeetako ekintzetan jarduten zuten, *vilica*-ren esanetara, baina kanpoan ere presentzia zuten. Emakume jabe txiki edo maizterrak, mantenu eta zaintze lanetan jarduten zuten emakumeek bezala, nekazal- eta abeltzaintza-lanak ere aurrera eramango lituzkete (Medina Quintana 2014, 71). Halatan, laborantza-esplotazio sistema aurrera eramatea, edozein mailetan, emakumeen lanarekin gabe ezinezkoa izango zen.

Hala ere, emakume hauei buruzko inskripziorik ez da agertu. Izan ere, kontuan hartu behar da inskripzio bat egiteko orduan beharrezkoa zen dirua eta, are gehiago, emakumeak nekazal munduan egindako ekarpena, askotan, lanbide bezala kontsideratua ez izana: “(...) de estas campesinas o labriegas se tienen pocos datos, ya que, al igual que los campesinos, fueron conmemoradas muy raramente tras su muerte” (Medina Quintana 2014, 118-119)

II. ZAINTEZETA MANTENTZE LANBIDEAK

Atal hau gehien irudikatzen duen kasua *obstetrici*-ena da, hots, emaginena. Hala ere, esan beharra dago lan honek ikertzen duen eremu geografikoan ez dela lanbide honen

⁸ Ov., *Fast.*, 2, 246

aipamen epigrafikorik aurkitu. Edonola ere, ezin da ukatu Iberiar Penintsulan *obstetrici-* en presentzia, erditzeko unean emakume batek laguntza behar zuelako.

Emaginen lana baimendua zegoen ogibide bat bazen ere, ez zen baloratzen. Hala ere, antzinatean oso ezaguna zen eta, gainera, emakumeek aurrera eramaten zuten lanbideen artean hedatuena ere bai (Medina Quintana 2014, 72). Inskripzioetan, *obstetrix*-arekin lotura duten beste hitz batzuk agertzen dira: *medica* eta *iatromea*. Medina Quintanaren (2014) ustetan, ez dirudi termino hauen artean desberdintasun handirik egongo zenik.

Obstetrix-ekin gertatzen den moduan, *Hispania*-n ez dago *iatromea*-rentzat erregistrorik. Bai, ordea, *medicae*-rentzat. Zehazki lau inskripzio agertu dira *medica* edo *medika* hitza dutenak. Hala ere, *Iulia Saturnina*⁹-ren kasua kenduta —aurrerago azalduko dena—, autore batzuen ustetan beste hirurak emakumearen *cognomen*-a izango ziren (Medina Quintana 2014, 75). Edonola ere, gizonezkoen inskripzio gehiago egoteak ez du esan nahi arlo horretan emakumerik egongo ez zirenik.

Lau inskripzioetatik bitan *medicae*-k *Ambata* izena dute, bata 55 urtekoa, *Ueratus*-en alaba, eta bestea 75 urtekoa, *Placidus*-en alaba¹⁰. *Medica* hitzak *cognomen*-ari erreferentzia eginez gero, nolabaiteko ahaidetasuna egongo zela esan zitekeen. Alabaina, Bertrand Remy-ren ustetan, lehenengo kasuan behintzat, ogibideari erreferentzia egiten dio. Alfredo Buonopane eta Dolores Mirón historialariek iritzi berekoak dira, baina Santos Crespo eta M^a Ángeles Alonso-k, ordea, ez dute planteamendu hau partekatzen (Medina Quintana 2014, 75-76).

Adibide gisa, aurretiaz aipaturiko *Iulia Saturnina*-ren kasua dugu [ikus I. eranskina]. Bertan testu idatziaz gain, bi erliebe ikus daitezke: emakume bat, *Iulia Saturnina* bera, eta ume baten irudia, bere ogibidearekin zerikusia izango zuena.

⁹ *CIL* II, 497

¹⁰ ABÁSOLO, J. A., 1974, *Epigrafía romana de la región de Lara de los Infantes*, Burgos.

Obstetrix-aren lanekin lotuta, badago inskripzioetan oso ohikoa den lanbidea: inudea edo *nutrix*-a. Honen irudiak sinbolismo handia zuen eta, askotan, literatura latindarrean amatasunaren balioen islada bezala agertzen da. Emakume hauen funtzioen artean, umea elikatzeaz gain, hura garbitzea, arropaz aldatzea, haurrari lo eragitea, bere osasunaz arduratzea,... zeuden (Medina Quintana 2014, 80-83).

Gainera, inudeek, legearen aurrean begirune handia zuten. Aintzatespen juridiko honek aditzera ematen du nahiz eta inudea familian esklabu sartu, askotan *liberta* ateratzen zirela, familian hartzen zuten papera zela eta. Ezaguna da esklabuen kasuan erlazio hori indartsuagoa zela, izan ere, behin edoskitze denbora bukatu, hauek familian jarraitzen zutelako eta *nutrix* libreak zirenak, ordea, ez (Mangas Manjarrés 2000, 223-225). Hala ere, *Hispania*-n, *nutrix* gehienen egoera juridikoa ez da ezaguna.

Egunera arte, hamar epigrafe hispaniko aurkitu dira inudeei erreferentzia egiten dietenak. Hauen adibide gisa Meridako *Clovatia Irena*¹¹ har daiteke, *Caius*-en *liberta* gisa agertzen delarik. Esan daiteke *Clovatia* bere jabeak askatu zuela familian hainbat urtez lan egin ostean eta, are gehiago, *Caius* beraren inudea izan zela esan daiteke. Eskaintzailerik agertzen ez denez, *Clovatia*-k berak monumentua ordaindu zuela defendatu ohi da (Medina Quintana 2014, 87).

Emakumeen hezitzaile lanekin jarraiki, badago *Hispania*-n *magistra* terminoa duen botozko inskripzio bat. *Aquilia Martia*¹² [ikus II. eranskina], eskaintzailea, Venus jainkosaren omenean ofrenda bat egiten du, bere akzioa inskripzioan islatzen delarik (Medina Quintana 2014, 91). Jatorria ezezaguna da, baina, edozein kasutan, beste lanbide femenino baten eredua da.

Ogibide femeninoen artean, ohikoenak, ehungintza-mundukoak ziren, horregatik emetasunaren ideala errepresentatzeko iruntzen dabilen emakume bat erabiltzen zen. Kasu honetan, esan daiteke artilearen lanketa emakume guztiak batzen zituela, hala

¹¹ *CIL* II, 545

¹² *CIL* II, 6262

aberatsenak nola pobreenak parte hartu zezakeelako. Halere, emakume bakoitzak lanarekiko duen erlazioa desberdina da zein giza taldekoak diren arabera: “en el caso de las aristócratas es más un símbolo mientras que las esclavas y las mujeres de condición humilde ejercieron tal actividad como un verdadero oficio” (Medina Quintana 2014, 92-93).

Ehungintza mundua oso zabala zen, lanbide desberdin asko bere baitan hartzen zituelarik. *Hispania*-n, adibidez, hurrengoak agertzen dira: *lanipenda*, artilea lantzen edo pisatzen duena; *quasillaria*, irulea; eta *sarcinatrix*, jostuna edo saretatzailea. Penintsulatik at, beste lanbide batzuk ere dokumentatu dira, hala nola *auri vestrix*-a, luxuzko oihalen salerosketan aritzen zena eta *auri netrix*-a, urre bodratzailea. Hainbeste ogibide egotea ehungintzak zuen garrantziaren islada baino ez da, hala ekonomikoki nola sozialki. *Hispania*-n *lintearia* lanbidearekin ere egiten dugu topo, mihise saltzailea, *Tarraco*-n (Tarragona) agerturiko inskripzio batean. Testua oso laburra da, emakumearen izena eta lanbidea baino agertzen ez direlako: *Fuluia*¹³ eta *lintearia* (Medina Quintana 2014, 94).

Ardazketa edo irutea artilea lantzeko orduan oso garrantzitsua den ekintza da; emakumeek egina izan zen, *quasillariae* izena hartu zutenak. Jarduera hau tailer txikietan, negozio familiarretan edota estatu mailako manufakturetan aurrera eramaten zuten. Hau da, bai nekazal eremuetan baita hirietan ere, emakumeek kardatu, ardaztu eta artilea lantzen zuten, haien arropa egiteko edo saltzeko helburuarekin (Medina Quintana 2014, 95). Ehungintza jardueri loturik, *Hispania*-n I. mendeko inskripzio bat dago, *Tucci*-n (Torredelcampo, Jaen) agertu zena. Bertan *lanaria* bat agertzen da, *Caesia Celsa*¹⁴ izena duena.

Hauekin batera, badaude ehungintza munduan beste ogibide batzuk emakumeek aurrera eraman dituztenak. Alde batetik, *vestiplicae* edo *vestipicae*-ak daude, zeinak arropa tolestu, gorde eta zaintzen zuten. Beste aldetik, *vestificae*,-ak daude, hots,

¹³ *CIL* II, 4318a

¹⁴ *CIL* II^{2/5}, 191

joskinak. Baliabide gutxi zituzten emakumeek ezin zuten zerbitzu hauetaz gozatu eta, beraz, oihalak txikizkako salmentan zebiltzatenei —*vestiarii*— erosi eta haiek josten zituzten. Bestela, *sarcinatrix*-engana jotzen zuten, arropa egiteaz edo konpontzeaz arduratzen zirenak (Rodríguez Neila, 1999, 85). Kasu honetan, Kordoban inskripzio funerario bat aurkitzen da, I-II. mende bitartekoa, non *Latinia*¹⁵ [ikus III. eranskina] izeneko *sarcinatrix* bat agertzen den.

Lehen aipatu bezala, *lintearia* mihise saltzailea zen, baina ez zen horretan bakarrik aritzen. Oihalak saltzeaz gain, lihoa josten zuen, mihisea egiteko. Are gehiago, kotoia eta kalamua ere landu zitzakeen. Artilea lantzen zuenak, ordea, *lanipenda* izena hartzen zuen. Bi hauekin lotura duen beste lanbide bat *purpuraria*¹⁶ edo oihalak purpuraz tindatzailearena da, luxuzko merkatura mugatzen dena. Jarduera hau ez zen emakumezkoena bakarrik, baina gehienetan haiek ziren ekintza hau aurrera eramaten zutenak (Medina Quintana 2014, 97). Adibide gisa, *Gades*-en (Cadiz) *Baebia Ueneria*-ren¹⁷ inskripzioa aurkitzen da, *purpuraria* dena.

Horrenbestez, *Hispania*-n *lintearia*, *purpuraria*, *lanaria* eta *sarcinatrix* soilik agertzen diren arren, gogoan izan behar da Inperioan zehar agertu ziren beste lanbideak ere hemen emango zirela: *vestifica*, *lanipenda* eta *seriara* —zeta merkataria—.

Azpimarragarria da *Segisamo*-n (Sasamón, Burgos) aurkitutako III. mendeko ohorezko inskripzio bat. Bertan sei emakume aurkitzen dira: jabe bat eta bost langile [ikus IV. eranskina]¹⁸.

Azkenik, atal honekin bukatzeko, ehungintzarekin zerikusia duen lanbide bat aipatu behar da: ehun garbitzaileak. *Hispania*-n ez dago ogibide honen erregistrotik baina ekintza hau *ancillae* eta emakume umilek aurrera eramango zuten, historian zehar emakumeen lanbide identifikagarria bihurtuko delarik (Medina Quintana 2014, 100).

¹⁵ *CIL* II²⁷, 339; *AE* 1981, 502

¹⁶ Lanbide honi buruzko obra interesgarria da FERNÁNDEZ URIEL, P., 2010, *Púrpura. Del mercado al poder*. UNED, Madril.

¹⁷ *CIL* II, 1743

¹⁸ *CIL* II, 5812; *AE* 1946, 120

III. HIRIGUNEETAKO LANBIDEAK

Inskripzioetan lanbidea iradokitzen duen terminoa beti agertzen ez den arren, *Hispania* erromatarreko beste lekukotasun batzuk hura aditzera ematen dute. Horrela, Meridan aurkitzen den epitafio batean, adibidez, emakume tabernari bat agertzen da grabaturik, *Sentia Amarantis*¹⁹ [ikus V. eranskina]. Tabernariak, *copae* edo *popinariae*, ez zuten ospe edo erreputazio onik eta, askotan, prostitutekin lotzen zituzten, ostalariekin gertatzen zen moduan —nahiz eta, teoriarik behintzat, bata janaria eta edaria zerbitzatzen eta bestea oheak egiten jardun—. Adibide honetan, eskaintzailea senarra da, eta bere emaztea tabernari bezala islatu nahi izan zuenez, bere ogibideaz harro zegoela ondorioztatu daiteke eta, ziurrenik, bera ere tabernaria zela eta taberna negozio familiarra zela. Honekin batera, Jaenen aurkitutako inskripzio batek *Appius*-en *liberta* zen *Clodia*²⁰ aurkezten du, *hospita* zena, ostatu ematen duena —emakumeei ere atxikitua— (Medina Quintana 2014, 101).

Hirian bertan aurkitzen zen beste ogibide bat *ornatrix*-ena zen. *Hispania*-n bi inskripzioetan aurkitzen da eta orraztaile edo ile-apaintzaileari egiten dio erreferentzia. Susan Tregiari-ren aburuz, emakumeen artean hau lanbide oso ohikoa zen. Izan ere, familia inperialekoak edo dirudunak ez ziren emakumeak —hots, zerbitzariak ez zituztenak—, *ornatrix* batengana jo zezaketen; gizonezkoak, bitartean, *tonsor* edo bizargin batengana jotzen zuten (Medina Quintana 2014, 102-103). Adibidez, *Gades*-en (Cadiz) aurkitutako *Turpa Thyce*²¹-ren inskripzioan *ornatrix* hitza agertzen da.

Lanbideen aniztasunarekin jarraiki, *Iluro*-n (Mataró), guraso batzuk bere alaba *Sicinia*²² zenari eskaintzen dioten inskripzio bat dago. Bertan, gurasoen lanbideak agertzen dira. Aita, libertoa izateaz gain, *pistor* zen, okina edo errotaria. Ama, *Caecilia*, *Marcio*-ren *liberta* zela agertzen da. Ez zen harritzekoa izango, aipatu den moduan, *Caecilia* bere senarrarekin errotari edo okin gisa lan egitea. Izan ere, askotan, bikoteek

¹⁹ *HAE* 1639

²⁰ *CIL* II^{2/5}, 211; *CIL* II 1698

²¹ *CIL* II, 1740

²² *IRC* I, 106

edo senar-emazteek, orokorrean libertoak zirenak, batera lan egiten zutela ikusi ohi da. Zentzu honetan, *Hispania*-n badago *brattearius*²³ —urre irabiatzailea— baten epigrafe bat, penintsulan ezagutzen den bakarra izanik. Hala ere, ezin da ezeztatu *brattearia*-rik egongo ez zenik, aurretik esan den arrazoiarengatik. Era berean, *aurifex*²⁴ baten inskripzioa ezagutzen da, *Tarraco*-n (Tarragona), bitxigintzan arituko zena. Eskaintzailea *Fabricia* da, beharbada bere emaztea zena eta bitxigintzan ere lan egin zezakeena (Medina Quintana 2014, 104-105).

Hispania-ko inskripzioetan aurkitu den beste lanbide bat *mima* edo antzezlearena da. Izan ere, gizarte erromatarrean emakumezkoak ziren antzezleak existitu zirelaren zantzuak daude. Hauetako batzuk ikuskizun publikoetan parte hartzen zuten eta, noizbehinka, lanbide hori izateagatik krimen bat egiten zutelakoan gaizkiletzat jotzen zituzten —emakumezkoak ziren abeslari, musikari, dantzari, gladiadore eta prostitutekin batera— (Medina Quintana 2014, 105). *Cornelia Nothis*²⁵ [ikus VI. eranskina], *Publius*-en *liberta*, adibidez, *secunda mima* zen. Meridan aurkitu zen bere epitafioa eta, ondorioz, bertako antzokian jardungo zuela baieztatu daiteke.

Ikuskizunen munduan barrena, Meridan aurkitutako *Lutatia Lupata-ren*²⁶ [ikus VII. eranskina] inskripzioa aurkitzen da. 16 urteko neska zena, epitafioan sokazko instrumentu bat jotzen agertzen da. Eskaintzailea *Lutatia Severa* da, onomastikarengatik hildakoa bere esklabua zela pentsa daiteke, geroago aske utzi eta ikasle gisa hartu zuena.

Azkenik, meatzaritzaren arloa jorratuko da. Izan ere, aipatu diren lanbide asko gizonezkoekin lotu izan dira —*brattearia* edo *clavaria*, kasu—. Hau, Medina Quintanaren (2014) ustetan, jarduera femeninoei hurbiltzean dauden aurreiritziak eragina da. Meatzaritzarekin berdina gertatzen da, ez da emakumeekin erlazionatzen, nahiz eta historian zehar gatza, urrea, zilarra, buztina eta talkoaren erauzketan parte

²³ *CIL* II²⁷, 333

²⁴ *CIL* II, 4434

²⁵ *AE* 1993, 912

²⁶ *AE* 1962, 70

hartu izan. Hortaz, meatzaritzaren munduan emakumearen presentzia etengabea da (Medina Quintana 2014, 107). Estrabon-ek *Hispania*-ko emakumeek meatzaritzan izandako papera aipatzen du: “Entre los ártabros, que son los pueblos más remotos de Lusitania hacia el Noroeste, la tierra tiene eflorescencias de plata, estaño y oro blanco (por estar mezclado con plata) y que esa tierra la arrastran los ríos. Y las mujeres, rascándola con sachos, la lavan en tamices tejidos en forma de cesto”²⁷.

IV. CORPUS EPIGRAFIKOAREN AZTERKETA²⁸

Lan hau burutzeko asmoz, inskripzio desberdinen bilaketa bat egin zen. Aurretiaz emakumeek aurrera eraman izan zituzten lanbideak aipatu eta azaldu dira, hauek ekonomia arloan izandako ekarpena islatze aldera. Orain, *Hispania*-n kontserbatzen diren lanbideei buruzko inskripzioak hartuta —Crespo Ortíz de Záratek 2009. urtean egindako bilduma eta lanean aipatuak izan direnak kontuan izanik—, *Imperium*-eko lurralde honetan ogibide horien islada edo oroitzapena nolakoa den ikusi nahi da. Azaldu denari jarraiki, emakumeen ogibidei buruzko 46 inskripzio izanik, hauen mota ikertuko da eta espazioan zein banaketa duten ere bai.

Hispania-n hurrengo ogibideak aipatzen dituzten inskripzioak aurkitu dira: medikuntza, olio-ekoizpena, ehungintza, artilegintza, ardo-salmenta, ostalaritza, irakaskuntza, antzerkia, zaindariak eta ile-apaingintza. Hauekin batera, tailer edo lur desberdinen jabetzak aipatzen dira ere bai —lurjabeak, patronak, adreilu fabriken jabeak, marmol fabriken jabeak, bitxigintza tailerren jabeak eta oihaingintza tailerretako jabeak—. Era berean, lanbide ezezagunak aurkitzen dira, inskripzioen kontserbazioa kalitate txarrekoa delako edo orokorrean langile talde baten barnean aipatuak daudelako, zehaztasunik gabe.

Ikusten denez, aipamen hauek ez dute aurretik azaldu diren lanbide guztiak ordezkatzeko. Kontserbazioaren kontua alde batera utzita, hainbat arrazoi egon litezke

²⁷ Strab., 3, 2, 9

²⁸ Atal honetan lan hau aurrera eramateko erabili diren inskripzioekin osaturiko taula baten azterketa egingo da. Datuak begistatzeko, ikus X. eranskina.

hau azaltzeko: alde batetik, emakumeek aurrera eramaten zituzten lanak ogibide gisa kontsideratu ez izana eta, hortaz, inskripzioetan ez azaltzea; beste aldetik, haiek zituzten lanak gutxietsiak izatea eta, ondorioz, hil ostean horren datua utzi nahi ez izana; eta, azkenik, jabetzen kontuari erreparatuz, jabetza hori behin senarra hiltzen zenean onartzen zitzaizela eta, beraz, senarra baino lehen hiltzen ziren emakumeak kargu edo kontsiderazio hori ez izatea.

Espazioari dagokionez [ikus XI. eranskina], bi modutara azalduko da informazioa: alde batetik, inskripzioen kopuruari dagokionez eta, beste aldetik, lanbide motari dagokionez. Ikusten denez, inskripzioen gehiengoa penintsularen hegoaldean aurkitzen dira, iparraldean gaur egungo Lugon (1), Burgosen (3), Huescan (1), Tarragonan (3) eta Bartzelonan (1) soilik agertzen direlarik. Iparraldeko beste eremuetan, berriz, ez dira aurkitu emakumeen lanbideei erreferentzia egiten dieten inskripziorik, baina, hala ere, kontuan izan behar da lanean zehar aipatutako ogibide asko aurrera eramango zirela, nahiz eta inskripziorik ez egon. Gainera, gogoan izan behar da aurkikuntzei dagokienez, gehienak, oso ustiatuak izan diren zonaldeetan agertzen direla, hots, hegoaldean — Andaluzian eta Badajozen—. Beraz, esan daiteke iparraldean hain zantzu gutxi egoteak ikerketa faltaren ondorio dela. Dena dela, inskripzioen kontzentrazio bat ikusi daiteke *Betica*-n, non 18 aipamen aurkitzen diren; erreferentziatan *Tarraconensis*-eko eremuan aurkitzen diren zenbaki berdina da, baina espazio geografikoaren aldetik eremu txikiagoa denez, eremu garrantzitsuagoa izango da. *Lusitania*-n, ordea, aipuen erdia aurkitzen da, hots, 9.

Lanbideen banaketa espazialari dagokienez, ez da logika zehatz bat aurkitzen. Hau da, kasu batzutan penintsula osotik barrena lanbide berdinak aurkitzen dira —adibidez, inudeen aipamenak hegoaldean zein iparraldean aurkitzen dira— eta, beste batzuetan, ordea, lanbide berdina toki batean kontzentratuta agertzen da. Azken honen adibide olio-ekoizleak liriateke, Sevillan soilik aurkitzen direnak —Ecija eta Peñafior herrietan, hain zuzen ere—.

Medikuen agerpena Burgosen —Belorado eta Lara de los Infantes herrietan— eta Meridan aurkitzen dira bakarrik, hots, iparralde eta hegoaldean. Beraz, suposatu daiteke lanbide hau penintsula osoan emango zela, izan ere, hura aurrera eramateko ezagutza baino ez zen behar; ez zen, olio-ekoizleen edo ardo-saltzaileen kasuan bezala, klima edo lur-mota zehatz bat behar —horregatik Andaluzian eta Extremaduran agertzen dira hauek—. Gauza bera gertatzen da jada aipatu diren inudeekin, zaintza lan bat izanik, eremu guztietan emango zen zerbait izango zela baieztatu daiteke, beharrezkoa zen baldintza bakarra emakumea izatea zelako. *Ornatrrix*-en kasuan, Jaenen, Lugon eta Cadizen daude. Lanbide oso arrunta izango zen hau ere, azken finean, emakumeen apainketara bideratuta zegoen zerbait zelako.

Lurjabe, *patrona* eta tailerren jabeen kasuan, Portugalen eta Espainiako Tarragona, Burgos, Almeria eta Ciudad Real eremuetan aurkitzen dira. Hau ere nahiko ohikoa izango zen, ez da eremu zehatz batera mugatzen, jabeek gizartean funtsezko papera zutelako eta *Imperium* osoan zehar aurkitzen direlako.

Ordea, *mima* edo antzezle bakarra dugu *Hispania*-n, Meridan, alegia. Honek bere zentzua du, Meridan gaur eguneko Espainiako antzoki erromatar garrantzitsuenetarikoa aurkitzen delako. Beraz, nahiz eta emakumeen presentzia antzerkietan oso eskasa izan, esan daiteke, agertzekotan, *mima*-k Meridaz gain, Medellin, Sagunto, Saelices, Zaragoza, Cartagena, Casas de Reina, Calatayud, Peñalba de Castro, Santiponce, Kordoba, Tarragona, Tarifa, Osuna, Ronda, Malaga, Alcudia eta Cadiz herrietan agertuko zirela.

Ehungintza eta artilegintza munduari dagokionez, Cadizen, Tarragonan, Kordoban, eta Jaenen —*purpuaria*, *lintearia*, *sarcinatrix*— aurkitzen ditugu. Alabaina, ez da ahaztu behar, ehungintzarekin zerikusia zuten jarduerak etxean bertan ere aurrera eramaten zirela eta, hau, inskripzioetan ez dela jasotzen. Ehungintza beharrezkoa zen heinean —arropa egiteko, etxeko ostilamendua egiteko,...—, emakume asko mundu honetan sartuta egongo zirela ezin da kolokan jarri.

Azkenik, badaude langile gisa aurkezten diren emakumeak, Burgoseko Sasamon herrian dagoen taulan²⁹ ikusi daitekeen moduan edota Malagako Valle de Abdalis herrian aurkitzen den moduan.

Beraz, argi geratzen da, ikerketa hau burutu ostean, *Hispania*-n lanbideei buruzko inskripzio gutxi aurkitu diren arren, nahikoak direla irakurketa bat egiteko eta emakumeen lan-mundura nolabait gerturatzeko.

Bestalde, ezin da ahaztu epigrafiak ematen dituen beste datu motak, hots, onomastikari, egoera juridikoari, adinari, erromanizazioari,... buruzkoak direnak. Kasu honetan, batu diren inskripzioen gehiengoa I-II. mende artekoak diren heinean, erromanizazio maila handia izango zela suposatuta daiteke, batez ere *Betica*-ko lurraldean, *Hispania Ulterior* baitzen erromatarren lehenetariko eragin-eremua izan zena. Hortaz, corpus honetan bildu diren inskripzioetan agertzen diren emakume gehientsuak, izen guztiz latinizatuak dituzte, hala nola: *Iulia Saturnina*, *Octavia Severa*³⁰ edo *Augustina*³¹—. Hala ere, eta batez ere *Astigi*-n (Écija, Sevilla) eta *Gades*-en (Cadiz), jatorri greziarreko *cognomen*-ak aurkitzen ditugu —*Caecilia Trophime*³² edo *Turpa Thyce*³³, kasu—.

Gainera, testuei erreparatuz gero, esaterako, emakumeen adinari buruzko informazioa eskuratu daiteke. Adibidez, adinari buruz: bilduma honetan, emakumerik zaharrenak, *Ambata*, 75 urte zituela eta, ordea, gazteenak, *Allia Avita*³⁴, 23 —*Lutatia Lupata* kontuan hartu gabe, 16 urte zituenak, honek lanbide zehatzik ez duelako, *alumnae* baita—. Horrez gain, langile hauen guztien artean zenbat emakume aske eta zenbat *liberta* zeuden arakatu daiteke. Kasu honetan, 10 *liberta* aurkitzen dira —*Clodia*, *Cornelia Nothis*, *Clovatia Irena*, *Latinia*, eta Sasamoneko teseran agertzen diren emakumeak—. Bestalde, inskripzio batzuen kasuan emakume hauek ezkondata zeudela

²⁹ *CIL* II 5812

³⁰ *Ibidem*

³¹ *AE* 1983, 529

³² *CIL* II 1474

³³ *CIL* II 1740

³⁴ ALARÇÃO, J., ETIENNE, R., 1976, *Fouilles de Conimbriga II*, Paris, 364 zbk.

agertzen da *uxor* hitzaren erabileraren bidez, alegia —bide batez libreak zirela iradokitzen duena—. Datu hauek guztiak garrantzitsuak ziren inskripzio bat ikusten zen momentuan hildakoa berehala identifikatzeko.

Era berean, epigrafeen izaera desberdinaz jardun daiteke ere. Gehiengoak izaera funerarioa badu ere, bilduma honetan ohorezkoak eta botozkoak diren inskripzioak aurkitzen ditugu, epigrafeen artean dagoen tipologia eta izaera anitzari buruz ikertzea ahalbidetzen duena. Honen adibide dugu *Caia Plancia Romana*-ren³⁵ inskripzioa, ohorezkoa dena; *Aurelia Vibia Sabina*-rena³⁶, botozkoa dena edota *Valeria Faventina*-rena³⁷, lurren jabetzari buruzko lege bat dena, izaera juridikokoa. Izaeraz gain, tipologiari dagokionez, gehiengoa epitafioak izan arren, teserak —aipaturiko Sasamonekoa—, estelak —*Aelia Lasciva*-ren³⁸ inskripzioa kasu—, errauts-kutxatilak —*Clodia*-rena, adibidez—,... ere daude. Horrez, gain, materialei erreparatuz gero, marmolez, hare harriz, kareharriz,... eginiko inskripzioak daudela ikusiko da, harrizkoetaz haratago. Hala ere, gutxiengoak dira.

Azkenik, idazkeran bilakaera bat dagoela aipatu behar da. Izan ere, zenbat eta II. mende bukaerara gerturatu, geroz eta laburdura gutxiago erabiltzen dira —paraleloki, bilduma hau hainbat formula epigrafiko ikusteko balio du, hala nola: *sit tibi terra levis, hic sita est, animo libens posvit*,... eta abarrekoak—. Honek, idazkeran ematen den aldaketari buruz informazioa ematen digu, letra motaz gain, idazteko ohiturak ere aldatzen joan direlako.

³⁵ *CIL* II 325 — *C(aiae) Planciae Ro(manae) ingen/ti praedio donatae / in agro accitano ob / oper(am) bene in rem p(ublicam) / navatam C(aius) Longin(us) con(sularis) off(ert) sol(us)*.

³⁶ *CIL* II 133 — *Deo Endovellico / Hermes Aureliae / Vibiae Sab[i]nae ser(vus) / marmorarius / a(nimo) l(ibens) p(osuit)*

³⁷ *CIL* II 4125 — *Imp(eratore) Caes(are) P(ublio) Helvio / Pertinace princip(e) / senatus patre patriae / Q(uinto) Sosio Falcone C(aio) Iulio Eruci/o Claro co(n)s(ulibus) III Idus Febr(uarias) / sententiam quam tulit / L(ucius) Novius Rufus / leg(atus) Aug(usti) pr(o) / pr(aetore) v(ir) c(larissimus) inter compaganos ri/vi Larensis et Val(eriam) Faventinam / descriptam et propositam pr(idie) Non(as) / Novembr(es) in v(erba) i(nfra) s(cripta) Rufus leg(atus) c(um) c(onsilio) c(ollocutus) / decretum ex tilia recitavit / congruens est intentio mea qua / [- - -]tus proximae argumentis / [- - -] parte prolatis rei / [- - -] aput me actu[m] est d/[- - -] i]nspectio itaq[ue / - - -] q[ui] in priva[- - -] - - -]a mox [- - -]*

³⁸ *AE* 1990, 606; *HEp* 4, 1994, 21

Ondorioz, nahiz eta emakumeen lanbideei buruz inskripzio gutxi izan, aurretik aipatu den bezala, hauetatik eskuratu daitekeen informazioa oso anitza dela esan beharra dago, edozein ikerketari ekiterako orduan kontuan hartu beharrekoak.

3. ONDORIOAK

Hispania-ko emakumeen lanbideen azterketa eginez, hainbat gauzei buruz hausnartu daiteke. Argien geratzen dena, edonola ere, emakumeak lan egiten zuela da, ekonomiari bere ekarpenak egiten zizkiola, hala etxe barruan nola etxe kanpoan ere. Hortaz, eragin-esparrua etxera mugatzen zena baino zabalagoa zen.

Inperioan zehar aurkitzen den informazio epigrafikoari esker, lan honen kasuan funtsean *Hispania*-koak direnak, emakumeek aurrera eramandako hainbat lanbide ezagutzen dira. Epigrafiak, gainera, gizartearen irudi zabala erakusten du, historiografia erromatarra ez bezala, eliteari mugatzen den zerbait ez delako. Ezbeharrez, ikusi den moduan, hainbat lanbideen adibideak ez dira *Hispania*-n aurkitu. Edonola ere, esan den bezala, horrek ez du esan nahi ogibide horiek eman ez zirenik, soilik ez zirela dokumentatu edo ez direla gaur egunera arte ailegatu.

Santos Crespo Ortíz de Zárate (2009) historialariaren liburua erabiliz, agerian geratzen da gizonezkoaren protagonismoa baita epigrafia arloan ere [ikus IX. eranskina]. Izan ere, inskripzioen zenbakia konparatuz gero, emakumeena murriztagoa dela ikusten da. Hau Inperioko mendebaldeko egoerarekin bat egiten du, non emakumeen lanbideen zenbakia eta aniztasuna gizonarekiko oso atzean geratzen diren, emakumeen lanbideak sektore oso zehatzetara mugatuz (Rodríguez Neila 1999, 112).

Santos Crespo Ortíz de Zárate-k (2009) erakusten duen desberdintasun hori, Daniela Pupillo-ren arabera, hurrengo gertaerarengatik izango zen: “el modelo ideal, que establece la casa como el ámbito femenino por antonomasia, influiría en la forma en que querían ser recordadas las mujeres. (...) [y] dado que el trabajo tenía mala

consideración en Roma, (...) optarían por no registrar en sus epitafios la labor que desempeñaban” (Medina Quintana 2014, 117).

Hala ere, ez da gutxietsi behar existitzen diren inskripzio gutxi horiek, lan honetan agertu den bezala, oso baliagarriak baitira. Gainera, kontuan izan behar da emakume askok anonimotasunean lan egingo zutela, patroien edo familiarren laguntzaile gisa, independentziarik, trebetasun profesionalik edo ospe sozialik lortu gabe. Ondorioz, ez zuten epigrafian erreferentziarik merezi zuten lanbiderik izaten (Rodríguez Neila 1999, 113).

Silvia Medina Quintanaren (2014) hitzetan, esan daiteke inskripzio hispaniarretan agertzen diren lanbideen gehiengoa zaintze eta mantenu jarduerekin lotura dutela, gizarte erromatarrak emakumearen esparru bezala onartzen zuena. Zerbitzariak, jostunak eta oihal-saltzaileak ere tradizionalki femeninotzat jotzen zen esfera batean lan egiten zuten, etxeko zereginak eta oihalgintza produkzioa aurrera eramaten zuten heinean. Tabernaria, ile-apaintzailea, okina eta *hospita* zirenak haien lanbidea etxetik at burutu zuten arren, etxekotasun esparruarekin lotura dute, janaria prestatu eta zerbitzatu, garbitu, logelak txukundu, umeak zaindu,... egiten zuten eta. Berdina gertatzen da *magistra* eta *medica* zirenekin, gizarte erromatarrak emakumeari eskatzen zion paperarekin zerikusia baitzuen: amatasuna eta zainketa. Horrela beraz, meatzaritzan jarduten zutenak, dantzariak edo aktoreak femeninoak ez diren esparruetan jarduten dute, eta, ondorioz, ospe txarra izatea ulertzen da.

Testuinguru honetan, beharrezkoa da aipatzea erromatar munduan, nahiz eta *Hispania*-tik kanpo izan, emakumeek jorraturiko lanbide gehiago ezagutzen direla. Honen adibide dira *Augusta Taurinorum*-eko (Turin) *clavaria*; zenbait *unguentariae* —olioak eta ukenduak prestatu eta saltzen zituen emakumeak—; edota idazkaritzarekin lotura zuten lanbideak, hala nola *notaria* —eskribaua—, *libraria* —idazkaria— edota *amanuenses* —kopiatzailea—. Era berean, *Hispania*-n lehen mailako produktuak saltzen zituzten emakumeak ere egongo zirela gogoan izan behar da: *piscatrix* —arraina saltzen zuen emakumea— edo *negotatrix leguminaria* —barazkiak saltzen zituen

emakumea— (Medina Quintana 2014, 118). Tamalez, lanbide hauek ez dira *Hispania*-ko inskripzioetan kontserbatu, baina, eremu erromatarreko beste lurraldeetan eman zirenez, pentsatu daiteke *Hispania*-n ere lanbide horiek aurrera eramán zuten emakumeak egongo zirela. Bereziki oinarrizko ekintzekin lotzen direnak, arrain-saltzaileak edo barazki-saltzaileak, kasu. Izan ere, lanbide hauek gabe, ezin izango zen eguneroko bizitza aurrera eramán.

Halaber, garrantzitsua da azpimarratzea lanbide hauek aurrera eramán zituzten emakumeek ez zutela ekonomia hispaniarrean bakarrik lagundu, parte-hartze familiarrean ere bere ekarpena izan zutelako —etxe barruko eta kanpoko jardueren bitartez, alegia—: “podemos asegurar que, tanto en el interior de las casas, como en el exterior, la labor de las mujeres era fundamental para el desarrollo económico del hogar y, por extensión, del Estado” (Medina Quintana 2014, 118).

Historiagile bezala, errealitate femenino hispanoerromatarra eskaini behar dugu, ikuspegi anitz kontuan hartuta, eta dauden datuak eta emaitzak iturri epigrafikoak eta beste iturri historikoak —klasikoak, litearioak eta arkeologikoak— behin eta berriro galdekatzuz aberastu behar ditugu, gure ezagutzak aurrera egin ahala. Ikerketa berriek emakumea, *Hispania* erromatarreko “aparteko kategoria” bezala hartu baino, horren osagarri gisa hartu behar du. Hots, “ligada indisolublemente, igual que los varones, (...) [a] procesos políticos, sociales, económicos, religiosos y culturales” (Gallego 2004, 200).

Lan honen bidez epigrafiaren baliozkotasuna azpimarratu nahi izan da, antzinako gizarteek inskripzioekiko zuten erlazioa zela eta. Nahiz eta antzinako gizarteek inskripzioak iraunkortasunerako garraio gisa izendatu, Job profetaren erostan ikusi daitekeen bezala³⁹ —“¡Ojalá se escribieran mis palabras, ojalá en monumento se grabaran, y con punzón de hierro y buril, para siempre en la roca se esculpieran!”— Mediterraneoko gizarte klasikoak —hots, Grezia eta Erroma— izan ziren benetako “inskripzio gizarteak” bilakatu zirenak (Andreu 2009, 3-4).

³⁹ Job, 19:23

Inskripzio baten eraiketak antzinako pertsona horrentzat oroitzapen eta iraunkortasun desioak islatzen zituen. Izan ere, monumentu batean izen pertsonalaren ebakidurak betiereko loria lortzeko bermea zen. Horrez gain, inskripzioen izaera bisuala nabaria zen eta, ondorioz, eguneroko bizitzarako komunikazioan berebiziko bihurtu ziren —hala arlo publikoan, nola pribatuan ere—. Horrela, adibidez, Augustok bere testamentu politikoa inskripzio erraldoi batean ezarri zuen —*Res Gestae*— eta Domizianok bere udal lege hispanikoak brontzean grabatzea eskatu zuen. Helburu ofizial hauetaz gain, pertsona “anonimoek” Memnón-eko Coloso-etan egon zirela idatzia uzten zuten *graffiti*-en bidez, buztinileek haien zeramikak sinatzen zituzten *sigillum*-en bidez eta bidaiari batek *miliarium*-en bidez norabideratzen zen (Andreu 2009, 3-4).

Horrez gain, eremu publikoan zeuden inskripzioak funtzio erakuslea zuten, komunitatean indibiduo batek zuen garrantziaren edo bestelako izaeraren berri emateko. Modu horretan egoera zibila aipatzea —*coniunx, Luxor, maritus, contubernalis,...*—, ezaugarri pertsonalak aipatzea —*optimus, benmerentissimus,...*— edo norberaren *cursus honorum*-eko karguak aipatzea, inskripzioa ikusten zuenarentzako baliagarria zen hura kokatzeko (Andreu 2009, 132). Beste era batean esanda: “frente al desprecio por el trabajo que muestra gran parte de la literatura latina, la epigrafía evidencia, sin embargo, el propio orgullo de los trabajadores que aparecen reflejados en sus epitafios” (Rodríguez Neila 1999, 14).

Lanaren bigarren helburua *Hispania* inperialeko ekonomian emakumeek izandako parte-hartze desberdina ikertzea izan da. Epigrafiaren bidez —eta, batzutan, iturri literarioen bidez—, emakumearen paper ekonomikoa aztertu nahi izan da, hainbat lanbideetan ikerketa ardaztuz —nekazal-eremua, zaintze eta mantenu lanak eta hiri-eremua—.

Ikusi ahal izan den moduan, eta Silvia Medina Quintanak (2014) bere liburuan azaltzen duen bezala, “la evidencia de las mujeres como agentes económicos activos difiere de la imagen que los autores ofrecen de la mujer en la Antigüedad” (Medina Quintana, 2014, 211) . Izan ere, autore greko-latinoak maila baxuko emakumeei buruz

ez dute ezer gutxi esaten eta, zer esanik ez, esklabuei buruz —noizbehinka mespretxuzko zentzu batean ez bada—.

Hala ere, lanean zehar aipatu denez, Jenofonte eta agronomoak —hauen artean Kolumela—, emakumeak *vilica*-k esandakoaren betearazle edo lurren jabearen emazte bezala aurkezten dituzte. Hala ere, ez dute hauen lana behar den bezala baloratzen. Askeak edo *liberta*-k zirenak, emakume pobreaken estereotipoa taxutzen dute, beharrarengatik lan egitera behartuta ikusten diren emakumeak, alegia. Hauei buruz ere, ez da askorik esaten. Aristokraziako emakumeei dagokionez, haien eragina etxeko esparrura mugatzen dute, funtzio nagusia emaginarena izanik, emazte eta ama eredugarria. Aberatsen lana emakumea nobletu egiten dute, ez da pobreekin gertatzen den bezala, mespretxugarria dela. Izan ere, hauek ez dute soldatarik jasotzen, haien lanbideak “naturaltasun femeninoa”-ren berezkoak direlako (Medina Quintana 2014, 211-212). Hala eta guztiz ere, material epigrafikoaren aurrean, autore klasikoek emandako informazioa zalantzan jartzen da, edo, gutxienez, ñabardu egiten da. Izan ere, estereotipo hauek guztiek emakumeen historiaren barnean lan egin duten ikertzaile guztiei esker berrikusiak izan dira, historia ikuspuntu berri batzuen bidez ikertuz.

Baieztagarria da, beraz, “Antzinaroko emakumeak” ikerketa objektu gisa izatea arestiko gauza dela. Gogoan izan behar da bi gertaera garrantzitsu izan zirela ikerketa hauen sorburu. Alde batetik, 1973. urtean *Arethusa* aldizkarian gai hauei buruzko ale berezia argitaratu izana, J.P. Sullivan-en gidaritzapean. Beste aldetik, urte batzuk geroago, Sarah B. Pomeroy autorearen *Goddesses, Whores, Wives and Slaves. Women in Classical Antiquity* (New York, Schocken Books, 1975) liburua argitaratu izana. Hauei hainbat liburu eta aldizkari zientifikoetan publikazio anitz jarraitu die eta, urteak aurrera egin ahala, gaur egun ekarpen asko —metodologikoak, emakumeen rola ikertzen dutenak,...— egotea eragin dute, ikerketari beste modu batean aurre egitea ahalbidetu duena (López, 1990, 7). Honekin jarraiki, aipagatu beharrekoa da lan hau oinarritu den obra. Izan ere, Silvia Medina Quintanak emakumeen lanbide eta ekarpen ekonomikoari buruz egindako lana sintesi ezinhobea dela iruditu zait.

Azkenik, lanaren hausnarketa nagusia aurkezte aldera, esan beharra dago oso zaila dela emakumeen benetazko ekarpena zein izan zen jakitea, gaur egunean erabiltzen diren estatistikak antzinaroko historiako ez daudelako. Haatik, emakumeek egindako lanari buruz hausnartzea eta hau ikertzea beharrezkoa da. Horregatik, emakumeek etxe barruan zein etxe kanpoan egiten zuten lana kontuan hartu behar da, askotan etxe barruan aurrera eraman dena ogibidetzat jo ez delako eta ordea, hauen ekarpenak oso handiak zirelako.

Izan ere, ekonomia familiarra emakumearen lanean ere oinarritzen dela ikusten da eta, era berean, Estatu erromatarra unitate familiarretan oinarritzen zen produkzioa aurrera egiteko. Modu honetan, emakumeak ere produkzio horren parte izango ziren. Horregatik oso beharrezkoa da emakumeen lana berrikustea eta baloratzea, “no ya en el sentido tradicional de visibilidad a las trabajadoras y propietarias, sino de enfocar desde otra perspectiva la economía de la Antigüedad” (Medina Quintana 2014, 214).

Esandako guztia laburbiltze aldera, argi geratu da emakumeak langileak izan zirela, begiratzen den ikuspuntutik begiratzen dela. Bitxia da, hein handi batean, epigrafiak eskaintzen duen informazioari esker emakumearen papera hain aktiboa izan zela ikustea, erromatar legislazioan baliabide ekonomikoetan izandako parte hartze hau agertzen ez den bitartean. Emakumeen ekarpena *Hispania*-ko ekonomian aditzera ematen da iturri literario eta, bereziki, iturri epigrafikoei esker: langile bezala, jabe bezala, esklabu bezala, klase sozial guztietakoak, landa mundukoak edo hirikoak,... direna direla⁴⁰.

⁴⁰ Lan honetan jorratu diren lanbideetaz gain, ezin da ahaztu emakumeak beste rol anitz izan zituela —sacerdozioak kasu—. Horrez gain, ekonomiari eta hiriaren ongizateari erreparatuz, emakumeek ere ekintza evergetiko asko egin zituztela aipatu beharra dago. Ezinezkoa da ahaztea, era berean, maila baxuenetan emakumeak aurrera eramandako prostituzio kasuak. Hala ere, lan honetan ez dira ikertu, adibide edota gertaera hauek ikertzeko lan independenteak jorratuko direlako Historia graduako 2016-2017 kurtsoa GRAL desberdinetan. Edonola ere, aipamen gisa, evergetismoari, matronazgoari eta kargu publikoei —sacerdozioei— buruzko informazioa izateko, ikus: MEDINA QUINTANA, S., 2014, *Mujeres y economía en la Hispania romana. Oficios, riqueza y promoción social*, Grupo Démeter: maternidad, género y familia. Oviedo: Trabe. 121-210; MORANT, I. (zuz.), 2005, *Historia de las mujeres en España y América Latina (I)*, Cátedra. 153-191 eta 221-237; eta POMEROY, S. B., 1999, *Diosas, rameras, esposas y esclavas. Mujeres en la Antigüedad clásica*, Madrid: Akal.

“No podemos obviar que la organización socio-política y económica romana es producto de una minoría masculina adinerada y poderosa; desde el presente podemos acercarnos al pasado con nuevos conceptos y categorías, sin quedar atrapados por esa red patriarcal que excluye y minusvalora la presencia de mujeres e individuos de los grupos sociales más humildes. Por tanto, el desarrollo y esplendor de Roma no se explicaría si solo atendemos a su cautivadora arquitectura o a sus luchas políticas y se deja al margen a la mayoría de la población que la vivió, ni se puede imaginar el progreso de las ciudades sin sus habitantes; del mismo modo, la evolución histórica de los individuos y del propio estado descansa sobre el trabajo anónimo de las mujeres” (Medina Quintana 2014, 219).

Lan honekin, hortaz, emakume hispanoerromatarren ogibidea eta ekarpen ekonomikoa ezagutzeaz gain, hura aintzat hartzea bilatu da.

4. ITURRI KLASIKOAK ETA BIBLIOGRAFIA

ITURRI KLASIKOAK

BALASCH, M. (ed.), 1990, Platon, *Teeteto*, Bartzelona.

CASTRO, C.J. (ed.), 1959, Kolumela, *Los doce libros de agricultura*, Bartzelona.

HECK, E.; WLOSOK, A. (ed.), 1994, Laktantzio, *Epitome*, Stuttgart.

MEANA, M.J.; PIÑERO, F. (ed.), 1992, Estrabon, *Geografía*, Madril.

SEGURA RAMOS, B. (itz.), 1988, Ovidio, *Fastos*, Madril.

BIBLIOGRAFIA

AGUADO, A., «La historia de las mujeres como historia social», VAL VALDIVIESO, M^a.I. DEL; TOMÁS PÉREZ, M.S.; DUEÑAS CEPEDA, M^a.J.; DE LA ROSA CUBO, C. (koord.), 2004, *La historia de las mujeres: una revisión historiográfica-n*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 57-71.

- ANDREU PINTADO, J., «La Epigrafía como ciencia de la antigüedad», Andreu Pintado, J. (koord.), 2009, *Fundamentos de Epigrafía Latina-n*, Liceus Ex-Excellence, 3-14.
- 2009, «El proceso material de la inscripción latina», Andreu Pintado, J. (koord.), *Fundamentos de Epigrafía Latina-n*, Liceus Ex-Excellence, 121-142.
- CANTARELLA, E., 1991, *La mujer romana*, Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela.
- CRESPO ORTÍZ DE ZÁRATE, S., 2009, *Trabajadores y actividades laborales en Hispania Romana. Fuentes epigráficas para la historia social de Hispania romana*, Valladolid: Pórtico Librerías.
- GALLEGO FRANCO, H. «Historia de las mujeres y epigrafía en Hispania romana: valoración historiográfica y perspectivas», VAL VALDIVIESO, M^a.I. DEL; TOMÁS PÉREZ, M.S.; DUEÑAS CEPEDA, M^a.J.; DE LA ROSA CUBO, C. (koord.), 2004, *La historia de las mujeres: una revisión historiográfica-n*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 185-200.
- HERNÁNDEZ SANDOICA, E., «Historia, historia de las mujeres e historia de las relaciones de género», VAL VALDIVIESO, M^a.I. DEL; TOMÁS PÉREZ, M.S.; DUEÑAS CEPEDA, M^a.J.; DE LA ROSA CUBO, C. (koord.), 2004, *La historia de las mujeres: una revisión historiográfica-n*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 29-55.
- HOYO, J. DEL. «La mujer hispanorromana de época imperial. Revisión de su papel», GARRIDO GONZÁLEZ, E. (ed.), 1986, *La mujer en el mundo antiguo, Actas de la V Jornadas de Investigación Interdisciplinaria-n*. Seminario de Estudios de la Mujer, Madrid: Universidad Autónoma, 237-243.
- LÓPEZ, A., MARTÍNEZ, C., POCIÑA, A. (ed.), 1990, *La mujer en el Mundo Mediterráneo Antiguo, Feminae: Seminario de Estudios de la Mujer*, Granada: Universidad de Granada.
- LORENZO ARRIBAS, J., «El telar de la experiencia. Historia de las mujeres y epistemología feminista», VAL VALDIVIESO, M^a.I. DEL; TOMÁS PÉREZ, M.S.; DUEÑAS CEPEDA, M^a.J.; DE LA ROSA CUBO, C. (koord.), 2004, *La historia de las mujeres: una revisión historiográfica-n*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 73-92.
- MANGAS MANJARRÉS, J., 2000, «Promoción social y oficio de las nodrizas», MYRO MARTÍN, M^a. M., CASILLAS, J.M., ALVAR, J., ETA PLÁCIDO, D. (ed), *Las edades de la dependencia durante la Antigüedad. Ediciones clásicas-ean*, Madrid, 263-275.
- MEDINA QUINTANA, S., 2014, *Mujeres y economía en la Hispania romana. Oficios, riqueza y promoción social*, Grupo Démeter: maternidad, género y familia. Oviedo: Trabe.
- RODRÍGUEZ NEILA, J.F., GONZÁLEZ ROMÁN, C., MANGAS J., OREJAS, A., 1999, *El trabajo en la Hispania romana*, Madrid: Sílex Universidad.

5. ERANSKINAK

I. ERANSKINA. *Julia Saturnina*, CIL II, 497.



D(is) M(anibus) s(acrum) / Iuliae
Saturni/nae ann(or)um XXV / uxori
incompara/bili medicae optimae /
mulieri sanctissimae / Cassius
Philippus / maritus obmeritis / h(ic)
s(ita) e(st) s(it) t(ibi) t(erra) l(evis)

SABIO GONZÁLEZ, R., «Julia Saturnina: madre o matrona emeritense», *Las piezas nos cuentan*, MNAR digital (Museo Nacional Arte Romano): https://www.academia.edu/8393690/Julia_Saturnina_madre_o_matrona_emeritense [2017-05-10]


II. ERANSKINA. *Aquila Martia*, CIL II, 6262.

Veneri / Aug(usta) / Aquilia / Martia / mag(istra) d(onum) p(osuit)

HISPANIA EPIGRAPHICA: undefined Inscription Record N° 12603.

http://eda-bea.es/pub/record_card_2.php?refpage=%2Fpub%2Fsearch_select.php&quicksearch=veneri+augusta&rec=12603
[2017-05-10]


III. ERANSKINA. *Latina*, CIL II^{2/7}, 339; AE 1981, 502.



M(arcus) Latinius M(arci) [---] / L(ucius)
Afinius L(uci) l(ibertus) Ata[---] / Latina
M(arci) l(iberta) T[---] / Demetrius fi[lius] /
Latina M(arci) l(iberta) Da[---] / sarcinatrix
[—]

HISPANIA EPIGRAPHICA: undefined Inscription Record N° 3919. http://eda-bea.es/pub/record_card_2.php?refpage=%2Fpub%2Fsearch_select.php&quicksearch=latina&rec=3919 [2017-05-10]

IV. ERANSKINA. Segisamo-ko taula, CIL II, 5812; AE 1946, 120.



Vot(a) / fel(iciter) // su(s)c[e(perunt)] / liben(tes) / patronis merentissimis et
 fe(licissimis) / et pr(a)estantissimis et pientissimis / cives pientissimi et amicissimi
 Seg(isamonenses) // dom(ino) nostro Aug(usto) Gor(diano) et Aviola co(n)s(ulibus) //
 G(aio) Sempronio Flavo / Valeri(a)e Severin(a)e patron(a)e nostr(a)e / G(aio) Severio
 Presso / G(aio) Valerio Lupo / G(aio) Turellio Cassiano / Pub(licius) Paratus /
 Pub(licius) Martialis libertus gen(tilis) / Pub(licius) Maritimus lib(ertus) gen(tilis) /
 Pub(licius) Mascellio lib(ertus) gen(tilis) / Pub(licius) Mercator lib(ertus) gen(tilis) /
 Val(erius) Candidus pectenarius / Val(erius) Quintio / Iul(ius) Morinus / B(a)eb(ius)
 Valoddu(s) fullo / Ant(onius) Missillus sutor / Iul(ius) Eufemus Amainius / (H)elenus
 fullo / Aearistus ser(vus) gen(tilis) / (A)emilius Secundus / Pelagius clavarius //
 Anti(stia) Caliope / Val(eria) Donata / Botia / Valeria Britta / Va<l=E>(eria) Avana /
 Oct(avia) Severa

HISPANIA EPIGRAPHICA: Tesera de Sasamón. http://eda-bea.es/pub/record_card_1.php?refpage=%2Fpub%2Fsearch_select.php&quicksearch=12111&rec=12111 [2017-05-10]

V. ERANSKINA. *Sentia Amarantis*, HAE 1639.



D(is) M(anibus) S(acrum)
/ Sent(iae) Amarantis /
a n n (o r u m) X L V
Sent(ius) / Victor uxori /
carissimae f(aciendum)
c(uravit) cun(c) sua vix(it)
ann(os) XVII

CERES, COLECCIONES EN RED: *Sentia Amarantis*.

<http://ceres.mcu.es/pages/ResultSearch?txtSimpleSearch=Estela%20de%20SENTIA%20AMARANTIS&simpleSearch=0&hipertextSearch=1&search=simple&MuseumsSearch=&MuseumsRolSearch=1>
[2017-05-10]


VI. ERANSKINA. *Cornelia Nothis*, AE 1993, 912.



Corne[li]a / P(ubli) l(iberta) Nothi[s] / secunda
mim[a] / Sollemnis et / Halyi / h(ic) s(ita) [e(st)]
s(it) t(ibi) t(erra) l(evis)

ARRIBAS, C. «Cuando las mujeres no podían ser actrices». <http://www.agitadoras.com/junio%202014/carmelo.htm> [2017-05-10]

VII. ERANSKINA. *Lutatia Lupata*, AE 1962, 70.





D(is) M(anibus) s(acrum) / Lutatia
Lupata ann(or)um XVI / Lutatia Severa
alumn(ae) / h(ic) s(ita) e(st) s(it) t(ibi)
t(erra) l(evis)

CERES, COLECCIONES EN RED: Lutatia
Lupata. [http://ceres.mcu.es/pages/Main?id=7793&inventory=CE08241&table=F](http://ceres.mcu.es/pages/Main?id=7793&inventory=CE08241&table=F&MUS&museum=MNAR)
MUS&museum=MNAR [2017-05-10]

IX. ERANSKINA. GRAFIKOA: INSKRIPZIOAK

Crespo Ortíz de Zaratek (2009) jasotako datuen araberako grafikoa aurkezten da. Begi bistakoa da gizonzkoerri erreferentzia egiten dieten inskripzioen nagusitasuna, baita lanbideka begiratuta ere.





Administrazioaren atalean, *dispensator* gisa jardungo zuen emakume bat soilik dago. Aipamen hau historialariengatik zalantzazkoa bada ere, lan honetan defendatu den legez, ezin da pentsatu emakumeek inskripzioetan agertzen ez diren ekintzetan lan egingo ez zutenik; horregatik, *dispensator* hau grafikoan sartzea beharrezkoa iruditu zait. Berdina gertatzen da merkataritza, garraio, meataritza eta eraikuntza arloetan, non emakumerik ez diren agertzen. Ekintza intelektualetan, aipatuak izan diren lau medikuak sartuta daude. Hiri-lanbideetan, berriz, emakume bakar bat aurkitzen dugu, patroï —*liberti patronae*— gisa.

Nekazal ekintzetan, berriz, olio-ekoizleak eta lur-eremuen jabeak izandako emakumeak agertzen dira, landan egiten ziren beste hainbeste jarduera inskripzioetan jartzen ez zirelako, ogibidetzat jotzen ez zirelako. Ardo-ekoizleak izango dira elikagai-industrian agertzen direnak.

Dekorazio eta zeramika munduan, baita bitxigintzan ere, emakumeen presentzia islatzen duten zenbait inskripzio daude. Hala ere, ehungintza izango da, bereziki, lanean zehar aipatu den moduan, emakumeen lanbidea. Hemen, *lanarius*, *lintearius*,

sarcinatrix,... eta abarrekoak sartzen dira. Ostera, zapatagintzan eta bigarren mailako artisautzan parte hartzen zuten aipurik ez dagoela aipagarria da.

Era berean, emakumeek ekintza ludikoetan parte hartu zuten, nahiz eta mundu hori gizonezkoen monopolizat jo daitekeen —gladiadoreak—. Eta, azkenik, bigarren mailako ekintza gisa izendatutakoetan, emakumeen gehiengoa aurkitzen dugu, izan ere, hemen sartzen dira *nutrix*, *ornatrix*,... eta abar.

X. ERANSKINA. TAULA: CORPUS EPIGRAFIKOA

Corpus epigrafiko honi esker, *Hispania*-ko emakumeen lanbideak agertzen dituzten inskripzioak modu argiago batean ikus daitezke, aurreko grafikoari jarraiki, lanbide bakoitzaren aipamena zenbatetan ematen den eta zein marko geografiko eta kronologikotan aurkitzen diren azaldu daiteke.

IZENA	DATA	LANBIDEA ETA AIPAMENA	AURKIKUNTZA TOKIA	ERREFERENTZIA
IULIA SATURNINA	II-III	Medikua <i>Medicae</i>	<i>Emerita Augusta</i> (Merida, Badajoz)	<i>CIL</i> II 497
IULIA MEDIKA	I	Medikua <i>Medika</i>	<i>Gades</i> (Cadiz)	<i>HEp</i> 11, 2001, 196
AMBATA I	I-II	Medikua <i>Medicae</i>	Lara de los Infantes, Burgos	ABÁSULO, J. A., 1974, <i>Epigrafía romana de la región de Lara de los Infantes</i> , Burgos.
AMBATA II	II-III	Medikua <i>Medicae</i>	Belorado, Burgos	<i>HEp</i> 10, 2000, 81
AELIA OPTATA	II	Olio ekoizlea	<i>Celti</i> (Peñaflor, Sevilla)	<i>CIL</i> II 2329
AEMILIA ART(H)EMISIA	II	Olio ekoizlea	<i>Celti</i> (Peñaflor, Sevilla)	<i>CIL</i> II 2326
APONIA MONTANA	II	Olio ekoizlea	<i>Astigi</i> (Ecija, Sevilla)	<i>CIL</i> II ^{2/5} 1166
CAECILIA MATERNA	II	Olio ekoizleak	<i>Astigi</i> (Ecija, Sevilla)	<i>CIL</i> II 1474
CAECILIA PHILETE				
CAECILIA TROPHIME				
AURELIA IUENTIANA	II	<i>Praedia</i> -ko jabea (lurjabea)	<i>Clunia</i> (Peñalba de Castro, Burgos)	<i>CIL</i> II 2812

IZENA	DATA	LANBIDEA ETA AIPAMENA	AURKIKUNTZA TOKIA	ERREFERENTZIA
CAIA PLANCIA ROMANA	I K.A.	<i>Praedia</i> -ko jabea (lurjabea)	Fiñana, Almeria	<i>CIL</i> II 325
VALERIA FAVENTINA	II	Latifundio bateko jabea (lurjabea)	<i>Tarraco</i> (Tarragona)	<i>CIL</i> II 4125
ALLIA CANDIDA	II-III	Patrona <i>Patronae</i>	<i>Municipium Flavium Laminium</i> (Alhambra, Ciudad Real)	<i>CIL</i> II 3229
IULIA	I-III	Adreilu fabrika baten jabea	<i>Conimbriga</i> (Condeixa-A-Velha, Portugal)	ALARÇÃO, J., ETIENNE, R., 1976, <i>Fouilles de Conimbriga II</i> , Paris, 364 zbk.
AURELIA VIBIA SABINA	I-III	Marmol fabrika baten jabea <i>Aurelia vibiae sabiniae servus marmorarius</i>	<i>Vila Viçosa</i> (Evora, Portugal)	<i>CIL</i> II 133
FABIA RESTITUTA	II	Marmol kantera baten esplotazioan zebilen familia baten kidea (onomastikaren bidez)	<i>Valle de Abdalajis</i> (Malaga)	<i>CIL</i> II 2011
CORNELIA CRUSEIS	I	Bitxigintza tailer baten jabea <i>Corneliae cruseidis servus</i>	<i>Tarraco</i> (Tarragona)	<i>CIL</i> II 6107
FULVIA	I K.A.	Ehungilea <i>Lintearius</i>	<i>Tarraco</i> (Tarragona)	<i>CIL</i> II 4318-A
BAEBIA VENERIA	II	Purpuaria <i>Purpuarius</i>	<i>Gades</i> (Cadiz)	<i>CIL</i> II 1743
LATINIA	I	Jostuna <i>Sarcinatrix</i>	<i>Corduba</i> (Cordoba)	<i>CIL</i> II ^{2/7} 339
ANTISTIA CALIOPE	III	<i>Segisamo</i> tailerreko langileak eta jabea <i>Valeri(a)e Severin(a)e Patron(a)e Nostr(a)e</i>	<i>Segisamo</i> (Sasamon, Burgos)	<i>CIL</i> II 5812
OCTAVIA SEVERA				
VALLERIA AVANA				
VALERIA BRITTA				
VALERIA DONATA				
VALERIA SEVERINA				
ALLIA AVITA	II-III	Oihalgintza tailer bateko jabea	<i>Conimbriga</i> (Condeixa-A-Velha, Portugal)	<i>AE</i> 1994, 828; <i>HEp</i> 6, 1996, 1032
CAESIA CELSA	I	Ilagina <i>Lanifici praeclara</i>	<i>Tucci</i> (Torredelcampo, Jaen)	<i>CIL</i> II ^{2/5} 191

IZENA	DATA	LANBIDEA ETA AIPAMENA	AURKIKUNTZA TOKIA	ERREFERENTZIA
SENTIA AMARANTIS	II	Ardo saltzailea (dekorazioaren bidez)	<i>Emerita Augusta</i> (Merida, Badajoz)	<i>HAE</i> 1639
CLODIA	—	Ostalaria <i>Hospita</i>	Torredonjimeno, Jaen	<i>CIL</i> II ^{2/5} 211; <i>CIL</i> II 1698
AQUILA MARTIA	—	Irakaslea <i>Magistra</i>	Ezezaguna, baina <i>Hispania Citerior</i> eremutik	<i>CIL</i> II 6262
CORNELIA NOTHIS	I	Antzezlea <i>Secunda mima</i>	<i>Emerita Augusta</i> (Merida, Badajoz)	<i>AE</i> 1993 912; <i>HEp</i> 5, 1995, 97
AELIA LASCIVA	II	Inudea <i>Nutrix</i>	<i>Mentesa Oretanorum</i> (Alcaraz, Albacete)	<i>AE</i> 1990, 606; <i>HEp</i> 4, 1994, 21
CLOVATIA IRENA	I-II	Inudea <i>Nutrix</i>	<i>Emerita Augusta</i> (Merida, Badajoz)	<i>CIL</i> II 545
FABIA TERTULLA	I-II	Inudea <i>Nutrici</i>	<i>Barcino</i> (Bartzelona)	<i>AE</i> 1966, 197
VALERIA AMABILIS	II	Inudea <i>Nutrici</i>	<i>Ager de Lancia Oppidana</i> (Valhelhas, Guarda, Beira Baja, Portugal)	<i>AE</i> 1960, 190
BRISEIS	II	Inudea <i>Nutrix</i>	<i>Astigi</i> (Ecija, Sevilla)	<i>AE</i> 1989, 414
SECUNDILLA	III	Inudea <i>Nutrix</i>	<i>Gades</i> (Cadiz)	<i>HEp</i> 6, 1996, 520
[...]TIENA [...]JOVELIA	II-III	Inudea <i>Nutrix</i>	<i>Valeria</i> (Valera de Arriba, Cuenca)	<i>CIL</i> II 3190
ANONIMOA	II	Inudea <i>Nutrici</i>	<i>Conimbriga</i> (Condeixa-A-Velha, Portugal)	ÉTIENNE, R., FABRE, G. LÉVÊQUE, P. ETA M., 1976, <i>Fouilles de Conimbriga</i> , Paris, 70-71, 41 zbk.
ANONIMOA 2	II-III	Inudea <i>Nutrix</i>	<i>Corduba</i> (Cordoba)	<i>CIL</i> II ^{2/7} 389
AUGUSTINA	II	Ile-apaintzailea	Peal de Becerro, Jaen	<i>AE</i> 1983, 529
CAIA CATTUNILLA	III	Ile-apaintzailea <i>Ornatricis</i>	<i>Lucus Augusti</i> (Lugo)	<i>HEp</i> , 11, 2001
TURPA THYCE	II	Ile-apaintzailea <i>Ornatricis</i>	<i>Gades</i> (Cadiz)	<i>CIL</i> II 1740
ANONIMOA 3	I-II	Ezezaguna <i>...natricis</i>	Ortilla, Huesca	<i>HEp</i> 1, 1989, 361-b

XI. ERANSKINA. MAPAK.

Erabilitako argazkia hurrengo web-orritik aterata izan da, baina autoreak editatua da, inskripzioak non kokatzen diren azaltze aldera: WIKIPEDIA: Hispania, <https://es.wikipedia.org/wiki/Hispania#/media/File:Conventushispanus.svg> [2017-05-18]

Goiko aldean Penintsulan zehar lanbideei buruz aurkitzen diren inskripzio desberdinen kopurua agertzen da —inskripzio berdinean emakume bat baino gehiago baleude, emakumeen kopurua erreferentziatu da, horrela, adibidez, Sasamonen 6 agertzen dira, nahiz eta inskripzioa bakarra izan—. Beheko aldean, ordea, lanbideen banaketa espaziala agertzen da, hots, lanbide bakoitza Penintsularen zein eremutan aurkitu den. Horretarako, erabili diren legendak hurrengoak dira:

 Aipamen bakarra	 Ardo saltzailea	 Medikua
 2 aipamen	 Antzezlea	 Olio ekoizlea
 3 aipamen	 Inudeak	 Jabeak
 4 aipamen	 Ehungintza arloa	 Ile-apaintzailea
 5 aipamen	 Ezezaguna	 Ostalaria
 6 aipamen		

